

## SAN JOSEPE HARROBIAREN IDEIA LEHIAKETA: 2EN FASERA PASAKO DIREN 5 FINALISTAK

2008 azaroaren 11-n argitaratu eman dira San Josepe Harrobiaren ideia lehiaketako 2 en fasera pasako diren 5 proiektu finalisten izenak. Epaimahaiaren erabakiari so eginez 4 proiektu hauek hautatzen dituzte finalean egon daitezten: **HARRIZATE 1259, TRONERA 0123, KISKY 1331 eta SUELO 2015**. Azken finalista, 5.ena alegia, herrian burutu den bozketaren ondorioz aukeratzen da (Kulturaren 2008/10/14 tik 2008/11/09 ra bitarte bozkatzeko aukera izan da) eta honen izena: **KO 0000** proiektua da (proposamenetara zuzenduriko 327 botuetatik %22,32 ko kopurua lortu du proiektu honek, beraz 4 pertsonetatik batek proiektu hau izan du gustokoen).

Herri bozketaren aztertuz, aipa dezakegu 409 botu igorri zirela dena baina hauetatik soilik 336 kontabilizatu direla. Botu ez kontabilizatuak, beraz, 73 izan dira eta atzera botatzeko arrazoi nagusiak 3 dira: Arrasate Herrian erroldaturik ez zeuden pertsonen botuak, 16 urte edo gehiago ez zituzten pertsonen botuak eta azkenik botu bat baina gehiago eman duten pertsonen botuak.

Bestalde aipatzekoa iruditzen zaigu, kontabilizatu diren 336 botu horien artean 331 botu baliozko bezala hartu izan direla eta aldiz 5 botu baliozkoak direla azaltzea. Baliozko botu guzti horien artean 327 proposamen zehatzetara zuzenduak izan dira eta 4 botu zuri ere eman dira.

Berezitasun gisa esan dezakegu, proiektu gehienek (batek izan ezik) botuak lortu dituztela. Beraz, 26 proiektuen artean botuak dibertsifikatu direla. Gainera, kontabilizatu ez diren botuen kopurua nahiko handia izan arren honek ez du herriko bozketaren azken emaitzan eraginik izan.

Bigarren fasera heldu diren proiektu hauen egileek, garapen zehatza eta proiektuaren defentsa burutu beharko dute eta hau izango da lehiaketa honetan aurrera eramango dugun hurrengo urratsa.

Finalista izan diren proiektuen egileak honako hauek dira:

- **HARRIZATE: EGILEA: ASIER SUDUPE HERNÁNDEZ eta IKER MARDARAZ LARRAÑAGA AZKOITIA (GIPUZKOA)**
- **TRONERA: EGILEA: ASMATU S.L DONOSTIA (GIPUZKOA)**
- **KISKY: EGILEAK: FERNANDO GARCÍA PINO eta MANUEL GARCÍA DE PAREDES DE FALLA MADRID**
- **SUELO: EGILEA: FABIEN BRISSAUD PARIS (FRANTZIA)**
- **KO: EGILEA: IÑIGO DE VIAR FRAILE GETXO (BIZKAIA)**

---

### LEHIAKETAREN BABESLEAK: